



ONDARROAKO
UDAL EUSKARA
BATZORDEA

Batzar-zk.: 2013/1
Eguna: 2013-01-29
Hasiera-Amaiera: 18:35 – 19:45
Tokia: Batzar-gela 2

UDAL EUSKARA BATZORDEAREN BILERA-AGIRIA

Batzartutakoak:

Leire Beitia	Udal Euskara batzordeburua
Itsasne Murillo	Txomin Agirre ikastola
Txomin L. Aramaio	AEKren, Radixu irriatiaren eta Kafe Antzokiaren ordezkaria
Asier Alkorta	Hitza egunkaria
Maite Rey	Batzordearen idazkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak:

Mikel Santiso	Antiguako Ama Arrantza Eskolako ordezkaria
Miren Urresti	EAJren ordezkaria
Bakarne Aretxabaleta	Ondarroako Institutuko ordezkaria
	Txirimorraski taldeko ordezkaria
	Zubi Zahar ikastolako ordezkaria

AZTERGAIK:

1. Aurreko batzarreko bilera-agiria onartzea.
2. EBPN urtebetez luzatzeko proposamena.
3. 2013rako aurrekuntu-aurreikuspena.
4. Zinea euskaraz.
5. Diru-laguntza deialdiak onartzeko proposamena.
6. Eskariak eta galderak.

Esan-eginak:

2. **EBPN urtebetez luzatzeko proposamena.**

Batzordeburuak eta idazkariak azaldu dute gaia eta batzordekideek ontzat hartu dute EBPN urtebetez luzatzeko proposamena, alegia, 2013ko abendua arte.

3. **2013rako aurrekontu-aurreikuspena.**

Batzordeburuak azaldu du nola geratu den euskararako aurrekontua. Adierazi du euskararako aurrekontua aurrekontu osoaren 1,6 besterik ez dela; baina, era berean, esan du udal sail guztietan %15eko murrizketa aplikatu badute ere, euskarak %7 besterik ez du murriztu. Hartara, aurreko aurreikuspenetatik murrizketa batzuk egin behar izan dira, hala nola, merkataritzarako ekintzetako atala osorik kendu da (2.000 euro) eta merkataritzarako diru-laguntzetako partidan ere 500 euro kendu dira.

Azaldu du Udalaren asmoa dela HITZARI lehentasuna ematea Udalak kontratatuko dituen publizitate gastu guztietarako, baina diru-laguntza zuzena 9.000 €koa izan behar dela, ez gehiago.

Txominek galdetu du Korrikari Udalak zer ekarpen egingo dion eta batzordeburuak erantzun dio doiketa batzuk egingo direla aurrekontuan hori bideratzeko.

4. **Zinea euskaraz.**

Batzordeburuak proposatu du gaia. Batzordekideek egokia ikusi dute programa mantentzea. Eta are interesgarriagoa zirkuitu komertzialean, eta ez bakarrik umeentzat, euskarazko filmak eskaintzea.

5. **Diru-laguntza deialdiak onartzeko proposamena.**

Hiru diru-laguntza deialdi hauek aztertu dira:

- Euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzat.
- Ekonomia jardueretan euskara sustatzeko.
- Euskararen sustapenerako.

Euskararen sustapenerako diru-laguntza deialdiko 8. artikulua aldatzeko proposamena aztertu eta batzordekideak bat etorri dira aldaketa hau egitearekin:

“Zortzigarrena.—Hautatzeko eta balioztatze irizpideak

Oinarri hauetan araututako diru-laguntzak emateko, ondoren zerrendatuko diren irizpideak eta gehieneko puntuak aplikatuko dira:

- a) Aurkeztuko proiektuak bat egitea Ondarroako Udalak Euskara Biziberritzeko onartutako II. Plangintza Estrategikoaren helburuekin36 puntu
- b) Beren-beregi, haur eta gazteenganako egitasmoak izatea.....15 puntu
- c) Programaren zuzeneko onuradun izan daitekeen hartzaileen kopurua aurreikustea edota parte-hartzaile kopurua zehaztea, behar den moduan frogatuta5 puntu
- d) Udal euskara batzordean parte hartzea5 puntu
 % 100ean..... 5 puntu
 % 80 4 puntu
 % 60 3 puntu
 % 40 2 puntu
 % 20 1 puntu
- e) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko irizpidea: ordezkari organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea (indarrean dagoen legeriaren arabera, %40tik %60ra bitarteko partaidetza)10 puntu
- f) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko irizpidea aplikatzea egitasmoetan.....8 puntu
- g) Jarraikortasuna aurkeztutako egitasmoetan.....6 puntu
- h) 3.000 € baino gutxiagoko proiektuak izatea.....8 puntu
- i) Autofinantzazioa: Diru-sarrera propioak izatea, ekintzaren aurrekontu osoaren eta eskatutako diru-laguntzaren arteko proportzioan oinarrituta 7 puntu
- Autofinantzazioa % 0-10 bitartean puntu 1
 Autofinantzazioa % 10-30 bitartean 2 puntu
 Autofinantzazioa % 30-50 bitartean 3 puntu
 Autofinantzazioa % 50-70 bitartean 5 puntu
 Autofinantzazioa % 70tik gora 7 puntu

Beharrezkoa izango da, gutxienez, 40 puntu lortzea eta lortutako puntuen arabera esleituko dira diru-laguntzak hurrengo baremoak jarraituz:

40-50 puntu.....	eskatutakoaren %60
51-60 puntu.....	eskatutakoaren %70
61-70 puntu.....	eskatutakoaren %80
71-80 puntu.....	eskatutakoaren %90
81 puntutik gora.....	%100

Diru-kopuru nahikorik ez balego, bakoitzari dagokionaren zati proportzionala esleituko litzaioke.”

6. Eskariak eta galderak.

Txominek eman du Korrikaren berri: martxoaren 14an hasi eta 24an Baionan amaituko da; eta Ondarroatik, 23an goizeko 10:00ak aldera pasako da. Kilometroko 400,00 € edo 450,00 € ordaindu beharko dela esan du. Eta Korrika kulturalaren baitan, martxoaren 17an antolatuko dutela emanaldi berezi bat. Galdetu du ea Udalak zer laguntza emango duen Korrikarako eta batzordeburuak erantzun dio baietz, emango duela.

ERABAKIAK

- Batzar-agiri hau onartu da: 2012-12-04koa.
- Zine aretoko arduradunarekin batzar bat egitea euskarazko film gehiago ekartzeko.
- Onartu da diru-laguntza deialdi hauek egitea:
 - Euskara ikastaroak egin dituzten herritarrentzat.
 - Ekonomia jardueretan euskara sustatzeko.
 - Euskararen sustapenerako (egindako zehaztasunak jasota).

Eta honenbestez, amaitu da bilera.

Batzordeburua
Leire Beitia

Idazkaria
Maite Rey